

## ERAZGOZPENETAN SENDOTASUNA

<p style="text-align: center;"><b>1</b></p> <p>Ni naz Txanton Mendiburu, hauxe daukat nik seguru: Jainkoa lagun, bost urte barru ehun urte seguru. Zenbat neke ta zizpuru, larrialdi ta apuru! Bizitza bera izan da nire maisua ta liburu.</p>	<p style="text-align: center;"><b>4</b></p> <p>Bardin, ume, gazte, zaharra, danok sufridu beharra; gitxien uste dogun orduan joten da baztarra. Batean dator negarra ta bestean irriparra; hauxe besterik ez dago, lagun, hartu eta parra.</p>
<p style="text-align: center;"><b>2</b></p> <p>Etenbako jirabira, danetik izan dira; sufriduteko jaio al ginan munduko bizira? Gaur hezi naz buztarrira, bizi-esperientzira; kurutza zenbat arinago dan sinismen argira!</p>	<p style="text-align: center;"><b>5</b></p> <p>Kurutzeagaz batera agertu nintzan lurrera, alkarren lagun ibili gara batetik bestera. Kurutza ez da aukera, tokatzen danaz aurrera; gatxena, baina onena dozu kurutze-karrera.</p>
<p style="text-align: center;"><b>3</b></p> <p>Izan ez bada negurik, nekez ohi dator fraturik; sufridu barik ez dago ezer, onik, ez heldurik. Ez bada sufrimenturik, ez dago eskarmenturik; kurutze barik ez dago, antza, betiko zerurik.</p>	<p style="text-align: center;"><b>6</b></p> <p>Kurutzeaz nintzan hasi, beragaz gorantza hazi; berari esker badakit zer dan geza eta gazi. Gura dauanak ikasi, badauka nok irakatsi: Jesus Maisuak eskeintzen deuskuz eskola ta grazi.</p>